



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO ABENDUAREN 19AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko abenduaren 19an arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Ricardo Arangoa, Olatz Dorai, Julen Beunza eta Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

Bertaratu da baita ere Ascensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko azaroaren 21eko ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/155 alkate ebazpena azaroaren 22koa, M^a Jesus Iriarte Labalderi onartuz Aizarozko bere etxeko terrazako losak berritzeko egindako aitoren arduratsua inguruko tasaren onespina.

-2019/156 alkate ebazpena azaroaren 27koa, Pedro Vildarraz eta Josefina Ochandorenak 11-2019 gainbalioaren likidazioaren aurka jarritako helegitea ez onartzea, Biderka Abokatuak azaroaren 26an egindako txostenaren arabera.

- 2019/157 alkate ebazpena abenduaren 11ekoa, onartzea Nafarroako Rural Kutxako 56.839 zenbakidun abalaren itzulketa, M^a Luisa Beunza Larumbek jarritakoa, Gartzarongo 6. Poligonoko 8. Lursailean dagoen eraikinean abere erabileraren etetea bermatzeko .

- 209/158 alkate ebazpena abenduaren 5ekoa, Gaztandegi Dorrea enpresari obra baimena ematea Beramendiko 1 poligonoko 87 lursailean dagoen eraikina handitzeko.
- 2019/159 alkate ebazpena abenduaren 11ekoa, baimena ematea Aralar Musika Eskolari , Oihanzabal Eskolako psikomotrizitate gela erabiltzeko, Urtarrilak 10, 17, 24,31 eta Otsailak 7 eta 14ean Musika eta Mugimendua ikastaroa burutzeko arratsaldeko 16:30etatik 17:15etara.
- 2019/160 alkate ebazpena abenduaren 11ekoa, onartzea Jose Sagardia Huartek egindako zaharberritzeko diru laguntza eskaera Olako 15. Poligonoko 37. Lursailean dagoen etxebizitzaren fatxada margotzeko.
- 2019/161 alkate ebazpena abenduaren 11ekoa, onartzea Proquo empresak aurkeztutako aurrekontua, Ihaben, Arrarats eta Berueten fibra optikoa jartzeko, aurrekontua 1.150 eurokoa (BEZ kanpo) izanik.
- 2019/162 alkate ebazpena abenduaren 13koa , Berueteko 12. Poligonoko 531. Lursailean egindako zaldiendako aterpearen obraren EIOZren behin betiko likidazioa onartuz.
- 2019/163 alkate ebazpena abenduaren 13koa, Amaia Arano eta Beñat Bildarrazi obra baimena Igoako 9 poligonoko 248 lursailean dagoen eraikinean bigarren etxebizitza egikaritzeko.
- 2019/164 alkate ebazpena abenduaren abenduaren 13koa, esleitzea zuzeneko moduan, Basaburuko udalarena den farmaziaren gaineko etxebizitza, M^a Cristina De Los Reyes Ayerrari.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- 2020. Urterako tasa eta zergak.

Alkateak azaltzen du urtero legez, hurrengo urteko tasa eta zergak onartu behar direla. Hauen azterketa egin ondoren, aurreko urtekoei KPI-a igotzea (%1.8) erabaki dela hortaz modu honetan geldituko ziren 2020. Urteko tasa eta zergak,

URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.275 €/m³
- Ur hornidura kuota: 20,08 euro (seihilabeteko)
- Saneamendu kuota: 20,08 euro (seihilabeteko)
- Ur lotura 267,51 euro.

- Hiri kontribuzioa; 0.235.

- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.

- 1.19 eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko aurreko urtetik ere KPIa igoz (2018ko erakuslea 1.170 izan zen).

- Lurren baloreen igoseraren zerga, 2019ko foru legearen arabera, mantentzen dira.

Urtebetetik beherakoa	0,09
Urtebete	0,09
2 urte	0,18

3 urte	0,28
4 urte	0,20
5 urte	0,06
6 urte	0,06
7 urte	0,06
8 urte	0,06
9 urte	0,06
10 urte	0,06
11 urte	0,06
12 urte	0,06
13 urte	0,06
14 urte	0,06
15 urte	0,06
16 urte	0,16
17 urte	0,29
18 urte	0,43
19 urte	0,56
20 urte edo hortik gorakoa	0,63

KARGA %25a.

AIZAROSKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROSKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala 13 euro baratzeke kobratuko dira KPI-a igoz, kontutan hartuta baratzak lur patrimonialean kokatuak daudela eta hortaz kobratu beharrekoa lursail horri dagokion ordaindu beharrekoa, errenta bezala kontutan hartuko da.

HIRIGINTZA TASAK

Aurreko urtetan bezala mantentzea erabaki dute bildutakoek.

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 50,00 €

>5000<15000: 70,00 €

>15000<30000: 140,00 €

<30000<60000: 210,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 350,00 €

<300000<600000: 420,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 70,00 € (Testua aldaketa Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak 70,00€).

- Urbanizatu ezin den lurrian			
-------------------------------	--	--	--

eraikitze baimena: 105 €			
- Sailkatutako jarduera baimena edo aitortpen arduratsua : 140 € 4D eranskineko jarduerak: 172 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 230 €			
- Irekiera baimena edo aitortpen arduratsua: 245 €			
4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 443 € 4D eranskineko jarduerak: 260 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
Eranskina: 70 €			
- Lursailen zatiketa baimenak: 205 €			
- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 210 €			
- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 245 €			
- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 315 €			
- Bestelako informeak, alegazioak: 175 €			

JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA

Kirol batzordean ere tasak mantentzea erabaki dute hortaz hauek izanen dira 2019ko polikiroldegia erabiltzeko tasak.

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.

- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko

- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

Bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2020. Urterako tasa eta zergak eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

4.-Mozioak.

Alkateak abenduaren 1ean ospatu zen HIESaren aurkako borrokaren nazioarteko egunaren inguruan bidalitako manifestua irakurtzen du, ondoren transkribatzen dena;

“ Urtero bezala, HIESaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna ospatzeko dei egin dizuegu, eta hasteko eskerrik eman nahi dizkizuegu zuen konpromisoagatik eta ekitaldi honetara egortzeagatik, Ospakizuna Parlamentaurekin batera egiten ari gara, hementxe bertatik eta gizarte soaren baitatik erantzun bat eman behar zaiolako pandemia honi. ONUSIDAREN aurtengo leloak diioen bezala, Aldea erakunde komunitarioetan dago.

Aurten kide gaituen CESIDAKO abenduaren 1eko batzordeak apostu egin du GIBaren ondoriozko estimanekin eta diskriminazioarekin amaitzeko, lelo honen bitartez: ZUREKIN, SEROFOBIAREKIN GABE, BIAK AURPEGI ASKO DAUZKA, ZUREA ERE BAI.

Guztiok pairatzen dugu GIBaren eragina, eta gure ardura da GIBarekin bizi diren pertsonenganako diskriminazioa akabatzea eta, hórrela, gure ikuspegia aldatzea. Estigma eta diskriminazioa jarrera eta jokabide injustuak eta oinarrigabeak dira, GIBa duten pertsonen bizi ohi dituztenak, eta ondorio negatiboak ekartzen dizute, hala fisikoak nola psikologiko eta sozialak, Erkidego osoaren ardura da haien eskubideak errepertatuak izatea.

GIBaren ondoriozko infekzioaren aurkako borrokaren barruan, ezjakintasunari eta okerreko sinismenei aurre egin beharra dago, askotan baitira arriskuzko jokabideen, jarrera diskriminatzaileen eta bazterkeria egoeren iturri. Horretaz gain, GIBarekin bizi diren pertsonen GIBari loturiko estigma pairatzen dute, eta halatan autoestigma bat sortzen da, berarekin erreduntasun, gutxiagotasun, lotsa eta bestelako sentimenduak dakartzana, era hoprretan gizarte bazterketarako eta autobazterketarako egoerak ahalbidetuz.

Diskriminazioa gertzen da estigma ezartzen denean gizartean, pertsona kaltetuekiko jarrera arbitrarioak probokaturik, GIBagatiko egoera serologikoaren ondoriozko diskriminazio horri serofobia deritzo.

Tratamenduetan eta osasun- artapenean izandako aurrerapausoek GIBa duten pertsonen itzaropena eta bizi kalitatea hobaeu dute, halako moduz non balabide egokiak dituzten herrialdeetan infekzio kroniko bat den: halare, BIGarekin bizi diren

pertsonak, 2019an ere, tratu diskriminatzaileak jasaten segitzen dute hainbat arlotan, hala nola hezkuntza, lana, osasuna eta prestazio eta aseguruaren eskuratzea. Horren gain, harreman afektibo eta sozialak egiteko zailtasunak izan ohi dituzte.

Trau horren efektuetako batzuk dira, seroestatusaren ikusezintasuna, zeinak estres-egoera bat sortzen baita, immunitate-sistema ahultzen eta laguntza-sareak murrizten dituena; autoestimua hondatzea, pertsonak tratamendua behar bezala hartzetik desmotibatzen dituena, noiz eta harekiko atxikipena funtsezkoa denean tratamendu antirretobiralen arrakasta lortzeko. Halaber zaindu egiten du pertsonak probak egitea, emaitza positiboa izatearen beldu, halatan diagnostiko berantiarerako aukerak areagotuz. Berandutze horrek are bost bider haunditu dezake heriotza-arriskua, diagnostiko goiztiarrarekin alderatuta. Beste ondorio batzuk dira GIBa duten pertsonen beldura sentitzea arrisku-murrizketako praktikak proposatzeko, hala nola preserbatiboaren erabilera, eta ahuldadea areagotzea indarkeriazko harreman sexual eta/edo afektibetan, bikotekideak haren egoera serologikoa ingurune sozialari jakiaraztearen izuagatik.

GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasunaren aldeko Gizarte Iturak deskribatzen duen bezala, zeina 2018ko azaroan aurkeztu baitzen, "GIBa duten pertsonetako diagnostiko eta tratamendu zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, halako moldez non kaltetuen bizi kalitatea eta osasuna okertzen baititu.

GIBari buruzko prebentzio eta sentsibilizazio kanpainen esfortzuarekin eta entitateok nahiz sare publikoak egiten ditugun detekzio probekin, lortzen ari gara pertsonak beren egoera serologikoa ezagutzea eta epidemia ezkutua azaleratzea: Nafarroan lortu dugu GIBa duten pertsonen %83 diagnostikoatuta egotea, baina oraindik ez dugu erdietsi ONUSIDAK 2020. Urterako ezarritako %goaren helburua.

Osasun Publikoaren Insituaren konklusioen arabera, GIBaren ondoriozko infekzioen diagnostiko berriek gora egiten segitzen dute: 38 kasu berri izan ziren 2018an eta 2019ko irailera arte 36ra iritsi gara jadanik. Diagnostiko berrien intzidentziak altua izaten segitzen du, batez ere, sexu bidezko trnsmisioarengatik. Era berean, sexu-trasmisiozko beste infekzio batzuek gorakada progresiboan segitzen dute, hala nola infekzio gonokozikoak, klamidiak eta sifilisak.

Horrengatik, beharrezkoa da aurrera segitzea genero perspektibadun prebentzio estrategia ahaltsuekin; sexu seguroagoa sustatzeko kanpina espezifikoa, droga kontsumoen kalteak murrizteko programak, GIBaren proba egin eta diagnostiko goiztiarra lortzearen aldeko sustapen- lana, Osasun sistemako Zerbitzu Zorroari berriki erantsi zaio Esposizio Aurreko Terapia, eta uste osoa dugu osasun sistemak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek lankidetzan aritu behar dutela prebentzio neurri honek bilatzen diren helburuak lor ditzan.

GIBik gabeko etorkizun baterantz aurrera egiteko, aldarrikatzen dugu gure erkidegoan adostasun politiko zabal bat susta dadila GIBari erantzuna emateko neurrien inguruan, horrekin guztiarekin eremu horretan esku hartzeko erreferentzia esparru egonkor eta ekitatiboa ezartzeko.

Akordio horretan beharizan zehatz batzuk jaso behar dira, honako hauek esate baterako:

- Aitortza, laguntza eta behar adinako zuzkidura ekonomikoa ematea esparru horretan lan egiten dugun Gobernu Kanpoko Erakundeoi.
- Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzan aritzea Prep delakoa eskuragarri ipintzeko prozesuan, Prep hori mesedegarria izan dakiekieen kasuan detekzioan, jarraipen eta laguntza emozionaleko jardunean eta Prep arekiko atxikipena indartzeko ahaleginean.
- Giza baliabide eta baliabide materialen zuzkidura ezartzea, sexu eta ugalketa osasunari buruzko dekretua modu orokortuan eta urgentziaz aplikada dadin esparru sozio sanitarioan eta Eskolae programaren bidez, hezkuntzaren esparruan, bai eta gizarte-ongizatearen beste arlo batzuetan ere.
- GIBari buruzko prestatkuntza berariazkoa irakaskuntzako eta esparru soziosanitarioko profesionalentzat; bereikizi, Oinarrizko Osasun Laguntzakoentzat.
- Urgentziaz eta modu orokortuan aplikatzea uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalerako orezentzako sarbideari buruzkoa.
- GIBak gaixotasun infekzioso kutsakor gisa duen katalogazioa erretiratzea.
- GIB-HIES-a kontraltzeko programa berreskuratzea, erreferentea izan baita herritarrentzat, eta funtsezkoa manifestu honetarako erreibindikazio guztiak taxutu, koordinatu, sustatu eta bultzatzeko.

Asko da orain arte lortu duguna eta ildo horretan lan egiten jarraitu nahi eta behar dugu, hemen gauden guztiongatik eta, bereikizi, GIBarekin bizi diren pertsonengatik eta haien familia, harreman sexu-afektibo eta adiskideengatik.

Gaur oso bereikizi nahi ditugu gogoan eduki gurekin jada ez dauden aktibitate horiek, zeini eskerrak eman nahi baitizkiegu gure lan, babes eta ahaleginarekin GIBaren kontrolean aurrera egiten jarraitzen dugulako.

Basaburuko udalak bere atxikimendua ematen dio irakurritako manifestuari eta akordio hau HIESaren aurkako Nafarroako batzorde Hirigarrea helaraztea onartu.

5.- Batzordeen informazioa.

-Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Lehenengo sektorea bultzatzeko kontratatu zen langileak lana utziko du eta berriro lanpostua aterako da. Berak jada diagnosia egin du eta eskualde bakoitzera bidaliko da egindako memoria. Urtarrilaren bukaeran hasiko da langile berria.

-Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

2019ko aurrekontuarekin, eskolako patio berritzeko fase bat eginen da. 3 aurrekontu eskatu dira eta horietatik 2 jaso.

Eskolako kontseilua bildu da aste honetan eta Oihanzabal eskolako jardunaldi jarriaren ebaluazioa aurkeztu. Ikasleak jasotzeko dauden aukeretatik familien ia %80ak bukaera arte uzten ditu umeak eta horrek dagoen pertsona bakarrarentzat lan karga haundia da. 2020ko azaroan berriro aztertuko da jardunaldi jarriarekin jarraitzeko aukera eta familiek berriro bozkatuko dute. Bozka horretan erabakitzen dena iraunkorra izanen da eskolarako, orain 2 urteko probaldiarekin dagoelako jardunaldi jarraitua.

Garraio ikuskariarekin ere bilera egin da, arazoak zeudelako Larraintzarera doan autobusarekin eta aldaketa proposamen egin du autobus bakarrarekin, Larraintzarko ikastetxeak eta Oihanzabalek zerbitzua izateko.

Oihanzabal eskolako Euskara Batzordeak euskara sustatzeko planaren emaitzak aurkeztu ditu, 42 familiek parte hartu dute eta emaitzetaik mintzakide talde bat atera da, gurasoendako euskara klasek eta abar...

6.- Informazio orokorra.

- Euskarabideak onartu du Euskara sustatzeko dirulaguntza 3796 eurokoa. Gastu bezala UEMARik ordaintzen zaio kuota justifikatzen da.
- Eskolako ballak aldatzeko dirulaguntzaren ordainketa ere onartu du Hezkuntza Departamentuak. Gastua 24.434,30 eurokoa izanik, dirulaguntza 13.577,48 eurokoa jasoko da.
- Nafarroako Eskola Kontseiluko bilera deitu da eta alkatea NUFeko ordezkari bezala bertaratu zen. Euskarabideko hurrengo urteetarako plangintza aurkeztu zen eta zer suposatuko dun euskararen dekretua atzera botatzea ere aztertu zen.

7.-Erregu-galderak.

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:10ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.